



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urtarrilaren 26a

11. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00011. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita 370/2023 Errege Dekretuaren eranskina alda dezan arantza bifidoa duten pertsonak barne hartzeko, halako moldez non, behar diren betekizunak betez gero, erretiro aurreratuari heltzeko aukera izanen baitute. María Teresa Esporrín Las Heras andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00012. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Ondare Historikoaren kontserbazio prebentiborako materialak gaurkotu ditzan. Ibai Crespo Luna jaunak aurkeztu du (4. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- 11-24/PES-00015. Galdera, Tafallaren eta Erriberriren arteko balizko bizikleta-bidearen azterlanari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/PES-00016. Galdera, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak 2022ko ekainean metabertsorako ezarritako mugarriei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00017. Galdera, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erregelamenduzko garapenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00018. Galdera, errehabilitazioko itxaron-zerrendan dauden pazienteak Oinarrizko Osasun Laguntzan baloratuak izan daitezen Tuterako osasun-barrutian ezarritako neurriari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00019. Galdera, desgaitasuna duten pertsonen osasun-garraioa egiteko protokolo bat ba ote dagoen jakitekoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00021. Galdera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako destinorik gabeko irakasle espezialisten lan-egoerari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00025. Galdera, Lodosako DBHn D eredia ezartzeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (11. or.).

- 11-23/PES-00135. Galdera, Nafarroan lan-istripuen kopurua murrizteko garatu diren neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-23/PES-00136. Galdera, Transporte Sanitario Bidean, SL enpresa publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-23/PES-00137. Galdera, 112ko informazioa Guardia Zibilarekin eta Polizia Nazionalarekin koordinatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-23/PES-00138. Galdera, Muface, Mugeju eta Isfasen onuradun izanik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak artatu ditueni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-23/PES-00139. Galdera, Nafarroako trenbide sarerako segurtasun neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-23/PES-00140. Alderdi Karlistari, 1976ko maiatzaren 9ko gertakarietako biktima politiko nagusia izan zen aldetik, dagozkion errekonozimendu publikoari eta erreparazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-23/PES-00141. Galdera, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legea aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-23/PES-00143. Galdera, Forestalia enpresaren goi-tentsioko linearen proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- PER20230030. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezkoen teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzekoa (funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa). Izendapen-proposamena (22. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-24/MOC-00011. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-
tzen baita 370/2023 Errege Dekretuaren eranskina alda dezan arantza
bifidoa duten pertsonak barne hartzeko, halako moldez non, behar
diren betekizunak betez gero, erretiro aurreratuari heltzeko aukera
izanen baitute**

MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita 370/2023 Errege Dekretuaren eranskina alda dezan arantza bifidoa duten pertsonak barne hartzeko, halako moldez non, behar diren betekizunak betez geroz, erretiro aurreratuari heltzeko aukera izanen baitute.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Espainiako Gobernua premia-tzen da 370/2023 Errege Dekretuaren eranskina alda dezan, arantza bifidoa duten pertsonak sartzeko, behar diren betekizunak betez gero erretiro aurreratuari heltzeko aukera izan dezaten. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak egingo du mozioaren jarraipena.

Zioen azalpena.

Arantza bifidoa bizkarrezur-muinaren sortzetiko malformazio bat da, haurdunaldiaren lehenbiziko asteetan gertatzen dena eta bizitza osorako ondorioak dituena. Nerbio-sistema zentralari erasaten dionez, sarritan sortzen du hidroze-falia, likido zefalorrakideoa metatzea burmuinean, mugikortasun eta sentsibilitate eza eta indar gutxi-asko galtzea, lesioa bizkarrezurraren zer tokitan gertatzen den.

Haurdunaldian azido folikoa hartzeagatik batik bat, azken urteotan jaitsi egin da malformazio horren intzidentzia, baina halere 31.700 pertsona daude Espainian arantza bifidoa eta hidroze-falia dutenak; hau da, gure herrialdean desgaitasunen bat duten pertsonen % 0,73.

Abenduaren 4ko 1851/2009 Errege-dekretua aldatu zuen maiatzaren 16ko 370/2023 Errege-dekretuak Gizarte Segurantzaren Legearen 161.bis artikulua garatzen du, ehuneko 45eko desgaitasuna edo hori baino handiagoa duten langileek erretiroa aurreratzeari dagokionez. Araudiarren eranskinean jasotzen diren gaixotasunen barruan, ez da arantza bifidoa agertzen erretiroa hartzeko adina jaitsi ahal izatea ahalbidetzen dutenen artean.

Administrazioa zorretan da arantza bifidoa duten pertsonekin, eta onartu egin behar die erretiro aurreratua hartzeko eskubidea, baldin eta horretarako baldintzak betetzen badituzte.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premia-tzen du 1851/2009 Errege-dekretua aldatzen duen maiatzaren 16ko 370/2023 Errege-

dekretuaren eranskina alda dezan –horren bidez, Gizarte-Segurantzaren Lege Orokorraren 161. bis artikulua garatzen da–, ehuneko 45eko desgaitasuna edo hori baino handiagoa duten langileek erretiroa aurreratzeari dagokionez, eta arantza bifidosar dezan erretiro aurreratua hartu ahal izatea ahal-

bidetzen duten gaixotasun neurologikoen artean, baldin eta erretiro aurreratua hartzeko bete beharreko baldintzak betetzen badituzte.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

11-24/MOC-00012. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Ondare Historikoaren kontserbazio prebentiborako materialak gaurkotu ditzan

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Ondare Historikoaren kontserbazio prebentiborako materialak gaurkotu ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondare historikoaren kontserbazio prebentiborako materialak gaurkotzeari buruzko honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak egingo du mozioaren jarraipena.

Zioen azalpena.

Prebentzioa funtsezkoa da ondare historikoa kontserbatzeko. Kontserbatu egin behar dugu gaur, bihar urgentziaz jardun behar ez izateko, hori izan behar da helburua.

Toki-entitateek berebiziko zeregina dute tokian tokiko ondarearen kontserbazioan; hortaz, beharrezkoak diren tresnak eta informazioa eduki behar dituzte beren ondare historikoa behar bezala tratatzeko. Gida gaurkotu bat eta dibulgazio-materialak edukitzea da kontserbaziorako lehen urratsa.

Baliabide ekonomikoez gain, ezinbestekoa da ikuskera profesionala izatea, jakiteko nola esku hartu ondasun historikoan, materiala zainduz eta kontserbazioaren eta leheneratzearen jardunbide onari buruzko irizpideak bermatuz, ondasuna eta haren balioa arriskuan jar ditzaketan jardunbide okerrak ekiditeko, eta orobat da ezinbestekoa lan egitea herritarrak sentsibilizatzen jarraitzeko gure inguruan dauzkagun ondasun historiko eta artistikoak behar bezala zaintzeari dagokionez.

Erakundeak ondarea kontserbatu eta balioan jartzeaz arduratu behar dira, bai eta errealitate tekniko eta erreflexibo berriei toki egiteaz ere; esaterako, jasangarritasuna, praktikan nola dibulgazioan.

Gizarte osoa prestatzea eta sentsibilizatzea kontserbazio prebentiborako lana sendotzeko, hori da bidea baldin eta gure ondare historikoak bizirik jarraituko badu eta ondarea eskuragarria izanen bada. Zuzenean jardun beharra dago Nafarroaren ondare historiko eta artistikoaren kasuan.

Horregatik guztiagatik:

1.- Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premia-tzen du "Gure ondarea erabili, mantendu eta kontserbatzeko gida" eta kultur ondareko lekuak garbitzeko eta desinfektatzeko gomendioak gaurkotu ditzan, jasangarritasun-irizpideak ezarrita, toki-entitate-

entzako material didaktiko berriekin, eta kontserbazio prebentiboaren dibulgazio-kanpaina bat sordezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00015. Galdera, Tafallaren eta Erriberriren arteko balizko bizikleta-bidearen azterlanari buruzkoa**ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Tafallaren eta Erriberriren arteko balizko bizikleta-bidearen azterlanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tafallako Udalaren Osoko Bilkurak honako mozio hau onetsi zuen 2020ko azaroaren 17an:

1. Nafarroako Gobernuari eta, bereziki, Lurralde Kohesiorako Departamentuari eskatzen diogu Tafallaren eta Erriberriren artean bidegorri bat egiteko aukera azter dezan.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu azpiegitura hori egiteko aurrekontua zuzki dezan, Gobernuak arlo horretan egindako apustuari esker argia ikusten hasiak diren beste bidegorri batzuen kasuan bezala.

3. Mozio hau Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuari eta hedabide guztiei igorriko zaie. Bozketa egin egin eta mozioa aho batez onetsi da.

1.- Lurralde Kohesiorako Departamentuak egin al du eskatu zaion azterlan hori?

2.- Egin ez baldin badu, zergatik ez da egin? Egitea aurreikusten al duzue?

3.- Azpiegitura hori egiteko aurrekonturik zuzkitu al da mozioa onetsi zenetik onetsitako Nafarroako aurrekontu orokorren batean?

4.- Lurralde Kohesiorako Departamentuaren asmoen artean al dago azpiegitura hori egitea?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00016. Galdera, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak 2022ko ekainean metabertsorako ezarritako mugarriei buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak 2022ko ekainean metabertsorako ezarritako mugarriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hauek ziren Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak 2022ko ekainean ezarri zituen mugarrak:

1.- 3D antena bat jartzea, Nasertic-ek utziko diguna, Nafarroan ditugun 100 telekomunikazio-zentroen erabilgarritasunari buruzko erakustaldi bat egiteko; zentro horiek telebista, irratia, telefonia eta larrialdi-seinaleak transmititzen dituzte, besteak beste.

2.- DTZ birtual bat instalatzea, aspaldi erakusten duguna aurkezpen formal batean, eskaera egiten zaigunean.

3.- Bilerak, aurkezpenak eta demoak egiten jarraitzea, administrazioak, enpresek, antolakundeek eta abar halakorik eskatzen dutenean. Gune bizi bat da.

4.- Prestakuntza-gelak sortzeko aukera aintzat hartzea.

5.- Artekari izan nahiko genuke (behialako estekak ziren modu bertsuan), nahi duten Nafarroako administrazioek haienganako sarbidea jar dezaten gure metabertsotik abiatuta.

Zertan da mugari horietako bakoitza?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00017. Galdera, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erregelamenduzko garapenari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erregelamenduzko garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen bosgarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

"Hondakinen kudeaketarako instalazioak edo azpiegiturak dituzten edo instalazio edo azpiegitura berriak sortzen dituzten udalerriek kalte-ordainak emanen zaizkie interes orokorrari egiten dioten ekarpenaren eta emandako ingurumen-zerbitzua-

ren ordainketaren kontzeptuan. Halakoak erregelamenduz zehaztuko dira, aipatutako instalazioen dimentsioen arabera eta entitate horiek hondakinen kudeaketa zuzenerako ekarpena dela-eta hartzen duten zama sozial eta ingurumen-zama gehigarria dela-eta egiten den balorazioaren arabera".

Lau urte eta erdi baino gehiago joan dira foru lege hori indarrean sartu zenetik, eta oraindik ez da onetsi kalte-ordain horiei buruzko erregelamendu bidezko garapenik.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten ditut, idatziz erantzun dakien:

1. Gobernuak zergatik ez du erregelamendu bidez garatu Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa, nahiz eta lau urte eta erdi baino gehiago joan diren foru legea indarrean sartu zenetik?

2. Gobernuak noizko aurreikusten du erregelamendu bidezko garapena egitea eta zer jarduketa egin du epai hori betetzeko, zeinak Gobernuak behartzen baitzuen "lehenbailehen" –eta betiere epaia eman zenetik urtebeteko epean– Erriberako ozono-maila hobetzeko airearen kalitate-plan nahitaezkoak egitera?

3. Gobernuaren ustez, zer udalek jaso litzakete kalte-ordain horiek bere udal-mugaratean hondakinak kudeatzeko instalazioak edo azpiegiturak edukitzeagatik?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00018. Galdera, errehabilitazioko itxaron-zerrendan dauden pazienteak Oinarrizko Osasun Laguntzan baloratuak izan daitezen Tuterako osasun-barrutian ezarritako neurriari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, errehabilitazioko itxaron-zerrendan dauden pazienteak Oinarrizko Osasun Laguntzan baloratuak izan daitezen Tuterako osasun-barrutian ezarritako neurriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zeintzuk dira, honako hauei dagokienez, errehabilitazioko itxaron-zerrendan dauden pazienteak Oinarrizko Osasun-laguntzako zerbitzuaren bidez artatze aldera Tuterako Osasun Barrutian ezarritako neurriaren ezaugarriak: zer irizpide erabiltzen den aukeraketa egiteko, zer profesional arduratzen den balorazioa egiteaz, zer erabaki hartzen ahal dituen, zer tratamendu eman daitekeen Oinarrizko Osasun-laguntzan, neurri horren ordainketa-modalitatea eta tratamendua egiteko ordutegia?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00019. Galdera, desgaitasuna duten pertsonen osasun-garraioa egiteko protokolo bat ba ote dagoen jakitekoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, desgaitasuna duten pertsonen osasun-garraioa egiteko protokolo bat ba ote dagoen jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Urte hasiera honetan istripu bat gertatu de Eguesibar/Sarrigurenen: ibilgailu batek desgaitasuna duen emakume bat harrapatu du zebra-bide batean, gurpil-aulkian zihoanean.

Emakume horrek adierazi digunez, eman zitzaion arreta tamalgarria izan zen: anbulantzia iritsi zenean, gurpil-aulki elektrikoa eramaterik ez zutela adierazi zioten. Berak darabilen garraio-bidea bertan utzi ezin zenez, emakumea aulkian

eseri zuten eta osasun etxera joan zedin proposatu zioten. Arratsaldeko hirurak baino gehiago zirenez, bere osasun etxeak ez zeukan larrialdietako medikurik, eta taxi egokitu bat eskatzeko esan zioten.

Taxi joan zen, eta ospitalean eskua hautsita zeukala diagnostikatu zioten (aulki elektrikoa manipulatzeko darabilen eskua, hain zuzen ere), bai eta kontusio ugari ere. Osasun-garraio-bide bat eskatu zuen etxera itzultzeko, eta taxia eskatu behar zuela esan zioten.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

– Ba al dago protokolorik mugitzeko laguntza (aulki elektrikoa edo gisakoren bat) darabilten desgaituei laguntza bermatzeko eta pertsona nahiz bere bizi-ekipamendua larrialdietako anbulantzietan eramatea bermatzeko?

– Zuzena izan al zen larrialdietako anbulantziak desgaitasuna duen emakume horri emandako laguntza? Zuzena izan ez baldin bazen, zer ekimen abiarazi behar izanen zuen istripu hori artatu zuen kontingenteak?

– Zer neurri hartuko dira Gobernuak Nafarroako Osasun-garraiorako Enpresa Publikoa sortzeko akordioarako baliatu zuen dokumentazioan jasotzen den konpromisoa bermatzeko? Izan ere, horren helburua da osasun-garraioaren zerbitzua ematea halakorik behar duten pazienteei, segurtasun, irisgarritasun eta pazientearen beharrezaneki egokitasun baldintzetan eman ere.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-24/PES-00021. Galdera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako destinorik gabeko irakasle espezialisten lan-egoerari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako destinorik gabeko irakasle espezialisten lan-egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion.

Jakin izan dugu Lehen eta Haur Hezkuntzako espezialitate desberdinetako (Gorputz Hezkuntza, Logopedia, Pedagogia Terapeutikoa...) ehun irakasle baino gehiagok lan-egoera bidegabea dutela: oposizioak gainditu dituzten funtzionarioak izan arren, oraindik ez zaie destinorik esleitu.

Zenbat dira Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzak egoera horretan dauden irakasleak, eta zein espezialitatetakoak?

Zenbat denbora daramate egoera horretan?

Zer egin du orain arte Hezkuntza Departamentuak egoera honi aurre egiteko?

Zer asmo du hemendik aurrera Hezkuntza Departamentuak egoera hau zuzentzeko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/PES-00025. Galdera, Lodosako DBHn D eredia ezartzeari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Lodosako DBHn D eredia ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion.

Datorren ikasturtean, Lodosako Institutuan, DBH D eredian eskaintzeko asmoa du Hezkuntza Departamentuak.

Zenbat ikasle dira eta zein ikastetxetakoak, Eskola Maparen arabera, LH 6. maila D eredian egiten ari diren ikasleak, eta Lodosako Institutuan DBH D eredian egiteko aukera izango dutenak?

Zein hizkuntza eredu mota eskaintzeko asmoa dago? Zenbat ordu eta zein ikasgai hizkuntza bakoitzean?

Noiz eta nola emanen zaie familiei eskaintza-
ren berri?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-23/PES-00135. Galdera, Nafarroan lan-istripuen kopurua murrizteko garatu diren neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan lan-istripuen kopurua murrizteko garatu diren neurriei buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 20ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, jakiteko ea zer ekintza zehatz egin den 2022an eta 2023an Nafarroan lan istripuen tasa murrizteko, errepikatutako ekintzak eta ekintza berriak bereizita (11-23/PES-00135). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Zer ekintza zehatz egin da 2022an eta 2023an Nafarroan lan-istripuen tasa murrizteko? Bereiztu errepikatutako ekintzak eta ekintza berriak.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren Lan Osasunaren Zerbitzuak egindako jarduketak azaldu baino lehen, gustatuko litzaike ezagutzera ematea Espainian prebentzio sisteman inplikaturik dauden askotariko eragileak zeintzuk diren.

LAN-OSASUNAREN PREBENTZIO SISTEMAN INPLIKATUTA DAUDEN ERAGILEAK

Espainiako lan osasunaren arloko prebentzio sistema konplexua da. Zenbait eragile daude inplikaturik.

Enpresaren barne esparruan, enpresaria da lanetik eratorritako kalteen prebentzioaren arloko arduradun nagusia. Ardura hori egikaritu behar du, plantillaren edota ordezkarien parte hartzea barne hartuta, lan baldintza seguruak eta kalterik eragiten ez dutenak lortzeko (sindikatuak, laneko arriskuen prebentzioaren arloko ordezkariak).

Enpresariak legez dituen erantzukizunak betetzeko beharrezkoak diren prebentzioko baliabideak antolatzeak askotariko modalitateak aukeratu behar ditu. Espainian, Europako beste estatu batzuetan gertatzen denaren kontrara, zenbait iturrik diotenaren arabera, enpresen % 70-90ek kanpoko prebentzio zerbitzuak kontratatzen dituzte.

Espainiako administrazio publikoetan, Laneko Agintaritzak (Garapen Ekonomikorako Departamentua Nafarroan) eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak zaintzen dute prebentzioaren arloko araudia, eta zehapenak ere jartzen dituzte ez betetzeagatik.

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten enpresen mutualitateek, laneko arrazoiengatik gaixotasunen bat edo kalteren bat duten pertsonen arreta emateaz gain, rol bat ere badute arriskuen prebentzioan. Aurrekontuaren % 0,7 bideratzen da Gizarte Segurantzaren urteko prebentzio planak ezartzera.

Nafarroan, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren Lan Osasunaren Zerbitzua da prebentzio sistemaren organo tekniko aholkularia.

Funts publikoak kudeatzen dituzten hirutariko entitateak ere badaude (12 milioi urtean), nola jarduketak hala azterketak finantzatzeko, hala nola Estatuko Prebentzioaren Fundazioa, bai eta sektore esparruko jarduketak egiteko ere, hala nola Eraikuntzaren Fundazioa eta Metalarena.

Aurrez aipatutako entitateez gain, parte hartze-ko hirutariko organoak ere badaude (administrazio

publikoak, enpresaburuen elkarteak eta sindikatuak), hala nola Segurtasuneko eta Osasuneko Batzorde Nazionalaren Osoko Bilkura nazio mai-

lan, eta Nafarroako Laneko Osasunaren Kontseilua gurean (ikus jarraian azaltzen den taula).

Prebentzio sisteman inplikaturako aldeak

ENTITATEA	ESKUMENAK	PROPOSAMENAK
ENPRESAK ETA ENPRESA ERAKUNDEAK	Plantillaren osasunaren eta segurtasunaren arduradunak	
SINDIKATUAK/ P ORDEZKARIAK	Langileen segurtasunaren eta osasunaren arloetako interesen ordezkari izatea.	
LANEKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKATZAILETZA	- Araudiko ez-betetzeak zaintzea eta zehapenak proposatzea. - Aholkularitza.	
LANEKO AGINTARITZA	- Erregistroak (zentroak eta obrak irekitzea, RERA, SerPA) - Zehapenak	
NOPLOI	1. Kalteak eta arriskuak zaintzeko eta informatzeko sistemak. 2. Prebentzio-aholkularitza enpresa eta autonomoi 3. Prestakuntza 4. Informazioa eta sentsibilizazioa Aholkularitza. 5. Prebentzioko eragileei eta erakundeei laguntzea eta horiekin koordinatzea	
PREBENTZIO ZERBITZUAK	Aholkularitza eta arriskuen prebentzioa aplikatzea	
MUTUALITATEAK	Kalteen errekonozimendua eta osasun arreta. Haurdunaldiko arriskuaren prestazioa kudeatzea. Gizarte Segurantzako Prebentziorako plana aplikatzea	

ENTITATEA	ESKUMENAK
ENPRESAK ETA ENPRESA ERAKUNDEAK	- Plantillen osasunaren eta segurtasunaren arduradunak. - Langileen osasuna eta segurtasuna babesteko behar adina neurri hartzea.
SINDIKATUAK ETA SINDIKATUEN ORDEZKARIAK	- Langileen segurtasunaren eta osasunaren arloetako interesen ordezkari izatea.
LANEKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKATZAILETZA	- Araudiko ez-betetzeak zaintzea eta zehapenak proposatzea. - Aholkularitza.
LANEKO AGINTARITZA	- Erregistroak (zentroak eta obrak irekitzea, RERA, SerPA). - Zehapenak.
PREBENTZIO ZERBITZUAK	- Enpresetan prebentzioaren esparrua garatzea. - Aholkularitza. - Osasuna zaintzea.
NOPLOI	- Kalteak eta arriskuak zaintzeko eta informatzeko sistemak. - Aholkularitza. - Prebentzioko eragileei eta erakundeei laguntzea eta horiekin koordinatzea.
MUTUALITATEAK	- Kalteen errekonozimendua eta osasun arreta. - Haurdunaldiko arriskuaren prestazioa kudeatzea. - Gizarte Segurantzako Prebentziorako plana aplikatzea.

NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA LAN OSASUNAREN INSTITUTUKO LAN OSASUNAREN ZERBITZUAK EGINDAKO JAR- DUKETAK

Nafarroako Gobernuak, eta are zehatzago NOPLOIko Lan Osasunaren Zerbitzuak, arriskuak prebenitzeko gaietan eskumena duen organoa den aldetik, Laneko Osasunaren Arloko 2022-2025 Ekintza Plana egin du Nafarroako Osasun Publikoko 2022-2025 Planaren baitan.

Hauek dira bertan jasotako lerro estrategiko nagusiak:

- Lan osasuneko arazo nagusien arriskuei heldzea, horien artean lanari egotz dakioken minbizia, laneko istripuak, nahasmendu muskuloeskeletikoak eta arrisku psikosozialetatik eratorritako kalteak.

- Arriskuen kudeaketa enpresen kudeaketan integra dadila sustatzea, hierarkia osoa inplikatu-ta, nola zuzendaritza hala langileak, bereziki arriskuak identifikatzeari eta ezabatzeari dagokion guztian. Horren arrakasta bi faktoreren arabera-koa da. Lehenengoa, enpresariak eta zuzendariak laneko arriskuen prebentzioarekin konpromisoa dutelako bermean oinarritutako kultura egokia sortzea (prebentzioaren kudeaketaren erantzuki-zuna), eta bigarrena langileek enpresaren prebentzio sisteman parte hartze aktiboa, propioa eta kontzientea izateko jardunbideak eta prozedurak egotea.

- Administrazio publikoak 25 langile baino gutxiagoko enpresetan aholkulari aritzeko duen rola sendotzea.

Horretarako, NOPLOIko Lan Osasunaren Zerbitzua zenbait programa prestatzen ari da gure komunitatean ezbehar kopurua murrizteko xedea-ekin:

1. ENPRESEN KUDEAKETAN PREBEN- TZIOA INTEGRATZEKO PROGRAMA

I. Arriskuen kudeaketa hobetzea: Webgunean dagoen NOPLOIren arriskuen kudeaketa zikloa eguneratzea. Prestakuntza prozesuan.

II. 60 orduko Laneko Arriskuen Prebentzioaren Oinarritzeko Ikastaroaren (teorikoa eta praktikoa) irakaskuntza gida egitea. Prestakuntza prozesuan.

III. Tresna informatikoak sortzea osasunaren esparruan eta esparru soziosanitarioan arrisku ergonomikoak identifikatzeko. Prestakuntza prozesuan.

IV. Prebentzioa Enpresetan Integratzeko eta Adinekoei arreta ematen dieten enpresetan pre-

bentzioaren kultura sustatzeko programaren fase pilotua. Betetzeko bidean.

- Egoiliarren mugikortasunaren arloan ergonomia kudeatzea.

- Kanpoko indarkeriarako protokoloak diseinatzea eta ezartzea.

- Demanda emozionalak identifikatzea eta horien harira jardutea.

2. LANEKO ISTRIPUAK MURRIZTEKO PRO- GRAMA

- Basoen sektorean laneko arriskuak prebenitzeko kanpaina berraktibatzea. (2019an hasi zen. Betetzeko bidean)

- 2022. eta 2023. urteetan zehar enpresetara egindako bisiten kanpaina espezifikoa:

- ♣ Eraikuntzako obrak eta enpresak baldintza materialak egiaztatzeko eta prebentzioari buruzko aholkularitza emateko. Betetzeko bidean.

- ♣ 2017-2020 bitartean egindako bisitetan proposatutako neurrien ezartze mailaren jarraipena. Betetzeko bidean.

- ♣ Handizkako biltegiak. Beteta.

- ♣ Gasolindegia. Beteta.

- ♣ Lantegiak eta okindegia. Beteta.

- ♣ Estalkietan eta goi tentsioko lineetan jausteko arriskua. Betetzeko bidean.

- Baldintza klimatologiko bortitzei (hotza eta beroa) buruzko kanpaina. Beteta.

- Estalki hauskorren gaineko lanetan laneko arriskuak prebenitzeko kanpaina berraktibatzea. Betetzeko bidean.

- “Irauli gabe bizi”, traktorea iraultzearen arriskua prebenitzeko nekazaritza eta abeltzaintzako kanpaina sustatzea. Beteta.

- Laneko istripuen barne ikerketen kalitatea hobetzea eta sustatzea aholkularitzaren bitartez eta laneko istripuen kausak aztertzei buruzko formazioak emanda. Betetzeko bidean.

- Jarduera enpresarialen koordinazioa indartzeko kanpaina sustatzea lan zentroetan instalazioen kanpoko mantentze lanak egiten dituzten enpresen eta lan zentroen enpresa titularren artean. Betetzeko bidean.

- Istripu larri eta hilgarri eta prebentzio intereseko istripu arinei buruzko alertak editatzea. Eten-gabea.

– Aztertutako laneko istripuen fitxa teknikoak editatzea. Betetzeko bidean.

– Laneko istripu larri eta hilgarrien azterketen datuei buruzko azterketa agregatua. Beteta.

3. LANETIK ERATORRITAKO MINBIZIAREN PREBENTZIO PROGRAMA

– 2022 eta 2023 urteetan zehar enpresetara egindako bisiten kanpaina espezifikoak.

♣ Egur gogorrekin lan egiten duten enpresak (kantzerigenoak). Beteta.

♣ Inox soldadura erabiltzen duten enpresak (ukipena kromoarekin eta nikelarekin, kantzerigenoak). Beteta.

♣ Kristal silizearekin lan egiten duten enpresak (kantzerigenoak). Betetzeko bidean.

4. ARRISKU PSIKOSOZIALETARAKO ETA HORIETATIK ERATORRITAKO KALTEETARAKO ARRETA PROGRAMA

– Lan Osasunaren Zerbitzutik lanetik erator daitezkeen osasun kalteetarako ematen den arre- ta protokolizatzea. Beteta

– Arrisku psikosozialen kudeaketa eta preben- zio sistema hobetzeari lehentasunezko arre- ta ematea Covid-19ak gehien kaltetutako sektore- tan. Betetzeko bidean

– Bultzada eta aholkularitza ematea laneko jazarpeneko, sexu jazarpeneko eta sexu arra-

zoiengatiko jazarpeneko protokoloetan. Betetzeko bidean

5. NAHASMENDU MUSKULOESKELETIKO- EN ONDORIOZKO EZBEHAR KOPURUA MURRIZTEKO PROGRAMA

– Enpresek lanaren ondoriozko nahasmendu muskuloeskeletikoak aztertzea sustatzea. Bete- tzeke bidean.

– Nahasmendu muskuloeskeletikoak eragiteko arrisku gehien duten jardueretarako aholkularitza eta kontrol kanpaina. Betetzeko bidean

6. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ORDEZKARIEN FORMAZIOA.

Lan Osasunaren Zerbitzuko teknikariek eta osasun langileek jarraitu dute PREBENTZIOKO ORDEZKARIENTZAKO LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO OINARRIZKO IKASTAROA antolatzen eta ematen. Programa 2017az geroztik ematen da. 2022ko abenduaren 31ra arte pre- bentzioko 923 ordezkari eman zaie prestakuntza.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par- lamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-23/PES-00136. Galdera, Transporte Sanitario Bidean, SL enpresa publi- koari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artiku- luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Transporte Sanitario Bidean, SL enpresa publiko- ari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 20ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parla- mentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-23/PES-00136 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako honi buruz, zehazki: “Osasuneko kontseilariak 2023ko apirilean iragarri zuen planifikatuta zeude- la Bidean osasun-garraioko enpresa publikoa abian jartzeko urratsak. Zertan da prozesu hori? Noizko aurreikusten da enpresak jarduera abia- tzea eta aurreikusitako jarduera osoa bere gain hartzea?” Hona hemen Nafarroako Gobernuko

Osasun kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Azaroaren 6an eratuko da Bidean SL osasun garraioko enpresaren Administrazio Kontseilua. Biler horretan Administrazio Kontseiluak karguak onartuko ditu, Administrazio Kontseiluaren Lehendakaritza eta Lehendakariordetza izendatuko dira eta enpresako zuzendari-kudeatzailea ere izendatuko da. Halaber, enpresa erakunde instrumental gisa aintzatetsiko da.

Zuzendari-kudeatzailea arduratuko da lanerako plana ezartzeaz, ahalik eta arinen jardunari ekin

ahal izateko eta osasun garraio osoa beren gain hartu ahal izateko. Asmoa da 12 eta 18 hilabete arteko epean hartuko dutela beren gain enkarguaren osotasuna.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Pamplona-Iruñea, 3 de noviembre de 2023

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

11-23/PES-00137. Galdera, 112ko informazioa Guardia Zibilarekin eta Polizia Nazionalarekin koordinatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 112ko informazioa Guardia Zibilarekin eta Polizia Nazionalarekin koordinatzeari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 20ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00137), 112ko informazioa Guardia Zibilarekin eta Polizia Nazionalarekin koordinatzeari buruzkoa. Hona Nafarroako Gobernuako Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak ematen dion informazioa:

Departamentuak gai horren inguruan lanean dihardu koordinazioaren eta elkarlanaren ikuspegitik, poliziak jasotzen dituen eta askotariko koordinazio aretoetan kudeatzen diren herritarren errekerimenduei ematen zaien arreta hobetze aldera; beroriek erantzuteko denbora murrizteko, hain zuzen eta ez da aurreikusten poliziarik fiskoki egotea 112ren aretoan.

Ez da inolako lanik egiten ari koordinazio proiektu batean ere; alabaina, berriz ere planteatuko balitz, sistemaren elkarrekotasuna oinarritzotzat jotzen jarraituko litzateke; beraz, partekatu behar izanen liriteke ez soilik Nafarroako Gobernuaren eta Foru Poliziaren larrialdietarako 112 telefono zenbakiaren bitartez jasotzen diren larrialdiak, baizik eta herritarrek Guardia Zibilaren (062) eta Polizia Kidego Nazionalaren (091) telefono zenbakien bitartez jakinarazten dituztenak ere.

Gaiaren konplexutasun logistikoa eta antolamenduzkoa dela-eta, beharrezkoa izanen da egoeraren analisia eta diagnostikoa egitea, honako hauek baloratzeko: banatu beharreko gaien ikusgarritasun komuna areto guztientzat; sisteman integratuko diren Estatuko kidegoen telefono-zenbakien bidez (091 eta 062) polizia kidegoek eza gutzen dituzten gaiak jasotzeko prestatutako sistemak; eta sistema moldagarri eta aldagarri bat, sistema abian jarri ondoren egin beharko liritekeen ebaluazioen ondoren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 8an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria. Amparo López Antelo

11-23/PES-00138. Galdera, Muface, Mugeju eta Isfasen onuradun izanik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak artatu ditueni buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Muface, Mugeju eta Isfasen onuradun izanik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak artatu ditueni buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 20ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Domingo González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Mufaceko, Mugeju-

ko edo Isfasko zenbat onuradun artatu dituen jakiteko (11-23/PES-00138). Hona Nafarroako Gobernu-ko Osasun kontseilariak ematen duen informazioa:

Mufaceko, Mugejuko edo Isfasko zenbat onuradun artatu ditu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak? Zenbat fakturatu zaie kasuko aseguru-entitateei? Zehaztu osasun barrutiak eta fakturazio-zentroa, bai eta osasun-laguntza nork eman duen ere, osasun-laguntza espezializatuak ala oinarrizko osasun-laguntzak.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak MUFACEko, MUGEJUko eta ISFASKo 13.816 onuradun eman zien arreta, gutxienez ere behin, 2022an, eta 2023an, apirilera arte, 8.485 laguni.

Osasun Barrutiak fakturatutako zenbatekoak eta fakturazio zentroak, zeinetatik fakturatu den, nola Osasun Laguntza Espezializatutik hala Oinarrizko Osasun Laguntzatik, honako taula honetan daude jasota:

Fakturazio Unitatea	Oinarrizko Osasun Laguntza		Osasun laguntza espezializatua	
	2022	2023	2022	2023
Osasun Mentala			2.902,04 €	249,39 €
Lizarrako Osasun Barrutia	16.437,21 €	7.346,85 €	25.34203 €	29.168,46 €
Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa			246.335,23 €	335.550,43 €
Iruñeko Oinarrizko Osasun Laguntza	169.910,88 €	190.281,15 €		
Tuterako Osasun Barrutia	11.481,22 €	12.437,50 €	296.446,48 €	211.535,60 €

Taula horretan ez da jasotzen Oinarrizko Osasun Laguntzak IMQ-AP Rural Hitzarmenagatik fakturatutakoa, Hitzarmen hori Osasunbideak eta IMQ aseguru etxeak izenpetu zuten beren mutualistei arreta emateko. 2022an zenbatekoa 495.489,84 eurokoa izan zen, eta 445.324,92 eurokoa 2023ko urrira arte.

Osasun-zentro publiko guztietan al dago protokolorik edo jarraibiderik ziurtatzeko mutualitate horietako onuradunei emandako osasun-laguntza fakturatuko dela? Hala baldin bada, zeintzuk dira?

Protokolorik eta jarraibiderik badago osasun zentro publikoetako fakturazio zentro guztietan irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren IX. eranskinean jasotako egoera guztietan ordaintzera behartuta auden hirugarren guztien fakturaziorako, eta horien artean daude MUFACE, MUGEJU eta ISFASKo onuradunak.

Osasunbideko zentro publiko guztietan Ordaintzera behartutako hirugarrenak identifikatu eta geroago fakturatzeko protokoloak, nola Oinarrizko Osasun Laguntzan hala Osasun Laguntza Espezializatuan, hemen daude jasota:

- Hirugarrenen osasun fakturazioa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zentroetan.
- Osasun fakturazioaren eskuliburua Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzurako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko urriaren 31n

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-23/PES-00139. Galdera, Nafarroako trenbide sarerako segurtasun neurri buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako trenbide sarerako segurtasun neurri buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 20ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak 11-23/PEI-00139 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik ba al duen Nafarroako trenbide sarearen segurtasuna hobetzeko segurtasun-neurriak jorrazteko ADIFekin edo Renferekin, eta, hala baldin bada, zer neurri ezarriko diren Berriozarko trenbide-pasaguneko segurtasuna bermatzeko. Hona Lurralde Kohesiorako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernua lanean aritu da Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioarekin (aurrez Sustapen Ministerioa zenarekin) eta ADIF zein Renferekin Nafarroako trenbide sarean dauden pasagunak kentzeko.

Berriozarko pasagunaren harira, zenbait soluzio aztertu dira berori kentzeko. Ez dago soluzio perfekturik; izan ere, hirigune batean dago, eta Berriozarko kale batean maila desberdinean obra bat egikaritzeak oztopoa eraginen luke.

Aztertu diren soluzio guztiek dute eragozpenen bat, eta, abiadura handiko trena Iruñera iristearen eta Iruñerriko trenbide kiribilgunea kentzearen ondorioz pasagune hori kenduko denez, ez zen sartu administrazioen artean izenpetutako hitzarmenetako batean ere.

Nolanahi ere, ADIFek segurtasun neurriak areagotu zituen, eta seinaleztapen akustikoa zein argizatua indartu zituen; horrez gain, erreien arteko zoruaren zati bat aldatu zuen, eta arrazoizko epe batean kiribilgunea kentzeko obrak egikaritu daitezela espero da.

Berriozarko pasagunak honako babes hau du:

- Langa-erdiaren besoa
- Pasagunea itxiko delako soinuak aurreabisua
- Errepideko semaforoa, gorri jartzen dena pasagunea ixten denean
- Seinaleztapen argizatua ibilgailuentzako
- Seinaleztapen argizatua oinezkoentzako, pasagunea itxita dagoenean pasatzea debekatzen
- Oinezkoentzako soinu abisua, pasagunea itxita dagoen bitarte osoan egoten dena
- Trenbideko oztopoen detektagailua, bidean egon daitezkeen ibilgailuen berri eman eta trena gelditzeko seinalea bidaltzen duena

Langa-erdiaren sistema eta aurreabisuko soinuarena berrizatu dira eta oinezkoentzako seinaleztapena eta soinu abisua jarri dira, baita oztopoen detektagailua ere, pasagunean.

Nafarroako Gobernua harremanetan dago ADIFekin, zehazteko zer neurri osagarri edota indartzeko neurri ezar daitezkeen, beharrezkoa izanez gero, Nafarroan oraindik dauden pasagunetan segurtasuna indartzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 8an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-23/PES-00140. Alderdi Karlistari, 1976ko maiatzaren 9ko gertakarietako biktima politiko nagusia izan zen aldetik, dagozkion errekonozimendu publikoari eta erreparazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Alderdi Karlistari, 1976ko maiatzaren 9ko gertakarietako biktima politiko nagusia izan zen aldetik, dagozkion errekonozimendu publikoari eta erreparazioari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 20ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak PES-140 galdera egin du. Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Erantzunaren esparrua arautzen duen arauzko markoa 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen 18. artikulua da; izan ere, 2. apartatuan honako hau ezartzen du: Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren errekonozimendu ekintzak bultzatuko ditu Gerra Zibilean eta frankismoaren garaian eraildako pertsonen memoria oneratzeko, bai eta, erailak izan ez baziren ere, arrazoi politikoengatik Nafarroako herri askotan errepresioa eta umiliazio “eredugarriak” sufritu behar izan zituzten pertsonena ere.

Hori dela-eta, eraildako, errepresioa jasandako eta umiliatueta mugatzen ditu legeak errekonozimendu ekitaldiak, eta ez, ordea, erakunde politikoetara. Beraz, Gobernuak ez du inolako administrazio egintzarik gauzatu behar gai horri dagokionez.

Monolitoa Memoria-toki gisa seinaleztatzearen inguruan, lehenik eta behin, argitu nahi dut momentu honetan hizpide den monolitoa ez dela Memoria-tokia. Aipatutako Foru Legearen 5. artikularekin bat, Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoari dagokio, organo eskuduna den aldetik, “memoria historikoaren tokiekin zerikusia duten gai guztiei buruz indarreko legeriarekin bat eskatzen zaizkion nahitaezko txostenak egitea”.

Bestalde Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko abenduaren 26ko 29/2018 Foru Legearen 7. artikulua memoria historikoaren toki baten deklarazioa eta inskripzioa prozedurari helitzen dio, eta, azken batean, f) apartatuan dioenez, Gobernuari dagokio.

Laster deialdia izango du aurrez aipatutako Batzorde Teknikoak, eta ofizioz sartuko da, eztabaida dadin eta txostena egin dadin, Jurramendin 1976ko maiatzaren 9ko gertakarietan eraildako bi pertsonen omenez (Ekintza Katolikoko Langile-ermandadeko kide Aniano Jiménez Santos eta Ricardo García Pellejero) Iraxteko monasterioaren ondoan paratutako monolitoa Nafarroako Gobernuak Memoria-toki deklaratu dezala eta, hala izanez gero, horren seinaleztapena jar dadila eskatzeko akordio parlamentarioa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko urriaren 25ean

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-23/PES-00141. Galdera, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legea aldatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legea aldatzeari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 20ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-23/PES-00141 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten duen Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legea aldatzea. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

2023ko azaroaren 7an, onetsi egin da Klima aldatzeari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea aldatzeko Foru Legea egin eta onesteko Foru Agindua; erantzuna emanen dio Estatuko Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Kooperazio Batzordearen 2022ko abenduaren 28ko Akordioari, 2023ko urtarrilaren 23ko 15. NAO argitaratu zenari, alegia.

Aldi berean Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Departamentuarterako Batzordearen lehenengo deialdia egin da; azaroaren 16an izanen da, eta planteamendua da Nafarroako Gobernuaren Departamentu guztiekin koordinatuta lan egitea. Departamentu horiei eskatu zaie ezean, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea-

ren aplikazio zehatzean berrikusi, ñabartu edota indartu behar den idazketaren alderdi zehatzak identifikatu badituzte, gogoeta horiek Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari helarazteko. Ekintza koordinatu bat gauzatu nahi da, jakitun baita klima-aldaketaren aurkako borroka erronka globala dela, gizartearen errealitate guztiei eragiten diela, eta, beraz, batera landu behar dela, foru legearen zeharkako izaera azpimarratuta.

Hasteko foru agindu hori onetsi ondoren, aurretiaz jendaurrean jartzeko aldi bat irekiko da, proposamenak jasotzeko, Nafarroako Gobernuko departamentuen ekimenez egindakoekin bat. Jasotako ekimen-maila handiagoaren edo txikiagoaren arabera, espero da Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea aldatzeko foru lege aurreproiektu bat izatea 2024ko urtarrilerako.

Foru lege aurreproiektua jendaurrean jarri behar izanen da, eta, aldi berean, nahitaezko txostenak bildu eta bidezko memoriak eginen dira. Jendaurrean jartzeko prozesuaren ondoren, eta aurkeztutako alegazioak aintzat hartuta, behin betiko testua eginen da, eta Nafarroako Gobernuko departamentuetara, Nafarroako Ingurumen Kontseilura, Toki Araubidearen Foru Batzordera eta Nafarroako Kontseilura igorriko da. Izapidetzea amaitzeko, Nafarroako Gobernuak Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea aldatzeko foru legearen proiektua onetsiko du. Departamentuak lan eginen du Klima Aldaketari buruzko Foru Legearen aldatzea 2024aren barruan onesteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 8an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-23/PES-00143. Galdera, Forestalia enpresaren goi-tentsioko linearen proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Forestalia enpresaren goi-tentsioko linearen proiektuari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 20ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak 11-23/PES-00143 galdera egin du, Forestalia enpresaren goi tentsioko linearen proiektuari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Aurrekari gisa, aipatu behar da 2022ko azaroaren 18an txostena eman zela Laura Aznal Sagasti andreak egindako beste galdera parlamentario bat erantzuteko. Horrekin batera aurkeztu ziren Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak hizpide den projektuan emandako txostenak, Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzako Industria eta Energia Arloak eskatutakoak, hain zuzen ere.

Halaber, adierazi behar da orain hizpide den galderak aipamena egiten diola 2023ko urriaren 9an BOEn Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak ingurumen inpaktuaren aldeko adierazpena eman izanari, eta proiekturako zenbait baldintza jarri zirela ere adierazten da.

Honako hau jakinarazten da egindako galderak direla-eta:

- Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Zuzendaritza Nagusian ez dago jasota Forestaliaren projektuan aldaketarik egon denik, eta Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzako Industria eta Energia Arloak ez du beste txosten bat egiteko eskatu, ezta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak ere, eta hala izan ohi da izapidetzen ari diren proiektuetan Nafarroan eragin nabarmena izanen ahal duten aldaketa esanguratsuak daudenean.

- Halaber, jakinarazten da ezen, aipatutako ingurumen inpaktuaren adierazpena BOEn argitaratu zela jakin denean, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak espediente osoa eskatu diola Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, 2023ko urriaren 11n. Informazio hori artean jaso gabe dago.

- Nafarroako Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak proiektu horren harira egindako txostenak aintzat hartzeari dagokionez, jakinarazten da Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa dela ingurumen inpaktuaren adierazpena emateko eskumena duen ingurumen organoa. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak emandako txostenen edukiak formulatu den ingurumen inpaktuaren adierazpenaren kontrakoak dira; alabaina, ingurumen inpaktuaren adierazpena funtsatu duten Ministerioaren gainerako txosten teknikoen ezagutzarik izan gabe, eta espedientearen dagoen gainerako dokumentazioa zein den jakin gabe, goiztiarregia litzateke horri buruzko baloraziorik egitea.

- Esan daiteke, baina, orain arte Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak egindako ingurumen inpaktuaren adierazpenen ebazpenak bat etorri izan direla Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak emandako txostenen balorazio teknikoarekin.

- Nafarroako Gobernuak proiektuari lotuta edota etorkizunean eman daitekeen txosten hipotetiko baten edukari lotuta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren eskumenean esparruan has ditzakeen jarduketei dagokienez, jakinarazten da Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari eskatutako txosten osoaren informazioa jasotzearen zain gaudela.

Behin jasotako informazioa aztertzen denean, hasi beharreko ekintzak aztertuko dira, hala bada-gokio.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko urriaren 27an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

PER20230030. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezkoen teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzekoa (funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa)

Izendapen-proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko ekainaren 5eko erabakiaren bidez, deialdi bat onetsi zuen, 2023ko ekainaren 8ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2023ko ekainaren 16ko 127. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena, oposizio bidez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezkoen teknikari-ofiziala izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa. Deialdi horretako epaimahaiak izendapen-proposamen bat aurkeztu du 2024ko urtarrilaren 10ean, Miren Gurutze Ongay Domench izangaiaren aldekoa.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 5. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezkoen teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat (funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa) oposizio bidez betetzeko deialdiko epaimahaiak Miren Gurutze Ongay Domench andrea-ren alde egindako izendapen-proposamena.

2. Miren Gurutze Ongay Domench andreaki eskatzea Legebiltzarreko Erregistro Orokorrean aurkez dezan deialdiko 8.3 oinarrian adierazten den dokumentazioa, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita 30 egun naturaleko epean.

3. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
